

Euskal Herriko lehen Unibertsitatea: Oñatin 1542

Deia, 1983-07-13.

Atzo, Unibertsitatea sortzeko asmoa eta eraikitzeko dirua eman zituen *gizonaz* aritu nintzen.

Aipa nituen guztiak ez ziren gorazarreak izan; hala ere *Don Rodrigo Saez de Mercado de Zuazolak* herri honen goi mailako ikaskuntzaren alde egindakoa ez du beste inork ondu. Bada, Ameriketatik elizak eraikitzeko bidali duen indianorik, eta neuk ezin ahaztu Andoaingo ederra egiteko Agustin de Leiza y Latixera herritarrak bidalitakoak; beste batzu, hain aipagarri edo gehiago den hospitalak edo Fundazioak (Deba) sortzeko, baina gure herrian *gizon bakar bat* izan dugu diru guzti hau eta hainbeste ardua, lan eta erregru Euskal Herriak behar zuen unibertsitatea eraikitzeko egin duenik.

Ikus dezagun oso laburki nola sortu eta hil zen Sancti Spiritus Unibertsitatea.

Orduan ere ez ziren lan handi horiek egiten errazak. Konturatu zen Rodrigo gotzaia honetaz ongi, garaiz hartu zituen kausinoak berez ernai zegoenak, eta hala ere ez zen behar bezain zuhur izan.

Lanak bota zituen paperen aurretik, badaezpada; eskerrak, Paulo IIIak derrigorrezko oinarria zen Bula bidaltzeko bost urte behar izan bait zituen, eta gero, Bulak Espainian funtzionatuko bazuen erregearen pasea behar zuenez gero, baimen hau lortzeko pasa ziren beste bost urterako Don Rodrigo bera hila zegoen.

Gure ahulezia eta erruak ere aipatu behar ditugu, noski.

Don Rodrigok unibertsitate ederra eraikitzeko zituenak eman eta hil zen; non ziren gure instituzioak?; beti bezala, bakoitza bere aldetik! Gure hiru probintzietako Batzar Nagusiak ez zuten behar adina egin, eta gure Nafarroak ezetza eman zuen. Eusko Institutio baten gabezia gorrian Gotzaiaren diruei jarraimena eman behar zietenen gora eta beheetan joan zen denbora eta 1706an diru faltaz hiru ikasle besterik ez zen geratzen. Oñatiko udalak jokatu zuen beti zintzo. Kondeak, ez, eskatu zitzaion laguntza, baina honek, oraintsu gure herriko dirudunen (batzu traperoak) legez, ez zuen unibertsitatea zer zen ere jakin nahi izan. Orduan Consejo Supremo de Castilla delakoak mehatxatu zuen unibertsitatea, dirua lortzen ez bazen, Titulo Akademikoak emateko baimena kenduko ziola. Hiru eskualdeak orduan hasi ziren arduratzen, beti gu arduratu izan garen legez, nolana eta gaizki, eta azken orduko presaz lortu zen 1777an behar zen delako Provisión Real hori.

Etorri zen Frantziatik Konbentzioko gerra, diru-iturriak agortu ziren, eta Madrilen, beti zain!, irakaskuntzarako Plan Berria gertatu zuten (12.7.1807) arabera itxi ziguten Oñatikoa, eta hauek geratu ziren bizirik: Salamanca, Alcalá, Valladolid, Sevilla, Granada, Valencia, Zaragoza, Huesca, Cervera, Santiago, eta Oviedo.

Ahaleginak eginda ere ezin zen honez gero hilda zegoena biztu, eta 1822an, *Kolejio* izatera jaitsi zen.

Gainontzekoa, literatura da.